

II - ARABAKO LURRALDE
HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

ARTZINIEGAKO UDALA

Prozesu honetan onartu eta baztertutako izangaiei behin betiko zerrenda: iraupen luzeko aldi baterako enplegua egonkortzeko salbuespenezko deialdiaren prozesua, 20/2021 Legearen 6. eta 8. xedapen gehigarrien ondoriozkoa, liburuzain plazari

2024ko apirilaren 17ko 199. Alkatetza Dekretuaren bidez, honako erabaki hau hartu da:

Deialdiaren oinarriak 2022ko abenduko ALHAOn (145 zenbakia) argitaratu dira, eta deialdiaren laburpen bat 2023ko apirilako BOEn (93 zenbakia).

Amaitu da eskaerak aurkezteko hogeï egun balioduneko epea, bai eta, hala badagokio, akatsak zuzentzekoa ere. Hori dela eta, honako hau

EBAZTEN DUT

Lehenengoa. Artziniegako Udaleko liburuzain plaza bat hautatzeko prozesuan (iraupen luzeko aldi baterako enplegua egonkortzekoa) onartutako eta baztertutako izangaiei behin betiko zerrenda onartzea.

IZEN-ABIZENAK	NAN	ONARTUA-BAZTERTUA	ARRAZOIA (1)	PUNTUEN AUTOBALORAZIOA
Usue Dorleta Olabarria Garay	3066****Q	Onartuta		100.00000
Xabier Aranguena Garcia	**6377**K	Onartuta		80.00000
Lucia Marcuartu Labaca	***4590*L	Onartuta		80.00000
Begoña Martinez	78**4**5N	Onartuta		47.33424
Alex Larrea Ortiz	7894****P	Onartuta		22.01664
Sara Rodriguez Arzamendi	**7505**N	Onartuta		21.13670
Hodeiza Saioa Barcena Mazuela	***2183*F	Onartuta		20.00000
Ane Endaia Txarterina	79****80N	Onartuta		20.00000
Mª Rosario Uriarte Ortega	4497****D	Onartuta		20.00000
Ainielle Zubiete Iza	**9976**P	Onartuta		20.00000
Aizeti Kintana Ibarrola	***88*76L	Baztertuta	A	30.20376
Rafael Fernandez Laredo	16***43*M	Baztertuta	A	20.00000

(1) Baztertzeko arrazoiak: eskaerarik ez dago (A), eskaera epez kanpo egin du (B), eskaera osatu gabea eta epearen barruan zuzendu gabea da (C), tasa ez du ordaindu (D), atzera egin du (E).

Bederatzigarren oinarrian jasotakoarekin bat etorritz, deialdian 1 plaza sartu d(ir) enez, autobalorazioan 22,016 puntu edo gehiago lortu dituzten eskaerak baloratu behar dira.

Bigarrena. Autobalorazioan kasu bakoitzean adierazitakoa baino puntuazio handiagoa lortu duten izangaiek agiriaren bidez egiaztatu beharko dituzte eskaeran alegatutako merezimenduak, 10 egun balioduneko epean, ebazpen hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera. Errekerimendu honek barnean hartzen ditu eskaeran alegatutako merezimendu guztiak, zazpi-garren oinarriaren arabera ofizioz kontsultatu behar direnak izan ezik, eskatzaileak aurka egin ezean. Era berean, I. eranskina aurkeztu beharko dute, ofizioz kontsultatuko den informazioaren zerrenda eta adostasun/aurka egite eredia jasotzen dituen.

Hirugarrena. Autobalorazioan kasu bakoitzean adierazitakoa baino puntuazio handiagoa lortu duten izangaiek adierazi beharko dute zein den deialdian parte hartzeko betekizun gisa erabiliko duten titulua, eta, hala badagokio, aurrerago egiaztatu beharko dute. Horretarako, II. eranskina beteta aurkeztu behar dute.

Laugarrena. Agiriak deialdia egin duen administrazioaren egoitza elektronikoan aurkeztu ahal izango dira, edo aurrez aurre, erakundearen erregistro eta herritarrentzako arretarako bulegoan. Era berean, Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak 16.4 artikuluan ezartzen dituen tokietako edozeinetan ere aurkeztu ahal izango dira.

Bosgarrena. 9.2. oinarriaren arabera, baztertutako pertsonak merezimenduaren balorazioa aurkeztu ahal izango dira, bai eta euskara azterketa egitera ere, kautelaz, baldin eta kanporatzearen aurkako errekurtsua aurkeztu dutela egiaztatzen badute. Lehiaketaren kalifikazioa argitaratzen den egunean errekurtsua ebatzi gabe badago, kautelaz egin ahal izango dute euskara azterketa. Egindako ariketek ez dute inolako baliorik izango errekurtsua ezestekoa bada.

Seigarrena. Esandako hautaketa prozesuan epaimahai kalifikatzaileetako kide hauek izendatzea:

	TITULARRA	ORDEZKOA
Epaimahaiburua	Alexander Rodríguez López	Pablo Martínez de Arbuló Echevarría
Bokala	José Javier Díaz Gómez	Olga Pascual Calle
Bokala	M ^{re} . del Carmen Rojo Pitillas	María Luisa Velasco Irusta
IVAPeko ordezkaria	Marta Ramírez Gómez	Ana López de Lacalle Eceolaza
Idazkaria	Eduardo Alday Galán	Javier Ortiz de Urbina Ugarte

Zazpigarrena. Agintzea ebazpen hau ALHAOn argitara dadila, bai eta erakunde honen iragarki taulan eta udalaren web orrian ere www.artziniegakoudala.eus.

Zortzigarrena. Ebazpen honek amaiera ematen dio administrazio bidearen, eta beronen aurka, nahi izanez gero, berraztertzeko errekurtsua jarri ahal izango zaio alkate-lehendakariari hilabeteko epean, ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera; edo, bestela, zuzenean, administrazioarekiko auzi errekurtsua administrazioarekiko auzien jurisdikzioan eskuduna den organoan, bi hilabeteko epean, aipatutako egun beretik aurrera. Ez dago bi errekurtsuak batera jartzerik. Aurrekoez gain, interesdunak egoki iritzitako beste edozein errekurtsu ere aurkeztu ahal izango du.

Era berean, epaimahaikide direnak Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 23. artikuluan xedatutako egoeretako batean badaude, edo deialdia baino lehenagoko azken bost urteetan izangaia prestatzen aritu badira, interesdunek edozein unetan errekusatu ahal izango dituzte epaimahaikideak, aipatutako lege testuaren 24. artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz.

Artziniegan, 2024ko apirilaren 17an

Alkatetza
JOSEBA VIVANCO RETES

I. ERANSKINA

Deialdi honen oinarri orokorren arabera, alegatutako merezimenduak egiaztatuko dira, kasuen arabera, kontsulta eginez dagokien erregistroetan, administrazio publikoen datu bitartekaritzarako plataforman edo ziurtagiria ematen duen erakundean.

Kontsulta horiek kasu guztietan egingo dira, salbu eta eskatzaileak modu arrazoituan horren aurka egin badu eta tratamenduaren ardura duen organoak hori aintzat hartzen badu.

Modu arrazoituan aurka egiten duela adieraziz gero, adierazpen horrekin batera aurkeztu beharko ditu, nahitaez, kontsulta daitezen nahi ez duen agiriak.

Deialdi honetan, deialdia egin duen erakundeak ofizioz egiaztatuko ditu eta/edo espedientean sartuko ditu, interesdunak berariaz kontrakorik adierazi ezean, honako datu hauek (ikus zazpigarren oinarria):

- NAN/AIZ.
- Titulu akademikoak, unibertsitatekoak zein unibertsitatez kanpokoak.
- Euskara tituluen eta ziurtagirien erregistro bateratuan inskribatutako euskara ziurtagiriak.
- IVAPen bidez (Administrazio Publikoaren Euskal Institutua) egin eta gaingidutako ikastaroen ziurtagiria.
- Gidabaimena (DGT).
- IT txartelen ziurtagiriak.
- Deialdia egin duen administrazioan egindako zerbitzuak.
- Deialdia egin duen administrazioan gaingidutako hautaprobak.

DATUAK KONTSULTATZEKO ADOSTASUNA/AURKA EGITEA

..... jaunak/andreak (NAN/AIZ:),
..... prozedurari dagokionez, honako hau

ADIERAZTEN DU (markatu dagokiona):

☐ Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 28.2 artikulua arabera, ez nago eranskin honetan adierazitako datuak kontsultatzearen aurka.

☐ Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak 28.2 artikuluan xedatutakoa aplikatuz, informazio hau kontsultatzearen aurka egiten dut:

- ☐ Titulu akademikoa.
- ☐ Euskarako hizkuntza eskakizuna.
- ☐ IVAPen bidez egin eta gaingidutako ikastaroen ziurtagiria.
- ☐ Gidabaimena (DGT).
- ☐ IT txartelen ziurtagiriak.
- ☐ Deialdia egin duen administrazioan egindako zerbitzuak.
- ☐ Deialdia egin duen administrazioan gaingidutako hautaprobak.

Aurka egiteko arrazoiak:

.....
.....

Agiri hauek kontsultatzearen aurka nago, eta neuk aurkezten ditut:

.....
.....
.....,(e) koren(a)

Sin.:

II. ERANSKINA

BETEKIZUN GISA AURKEZTEN DEN TITULUAREN ADIERAZPENA

..... jaunak/andreak (NAN/AIZ:.....),
..... erakundearen..... deialdiari
dagokionez, honako hau

ADIERAZTEN DU:

Deialdi honetan parte hartzeko betekizun gisa..... titulua era-
biliko dut, egun honetan lortua:

.....,(e) koren(a)

Sin.: